

Nola bete inprimakia?

Laster eguneratuko da inprimakia, baina, bitartean, jarraibide batzuk emango ditugu zalantza gehien sortzen dituzten atalak betetzen laguntzeko.

- Titularraren datu pertsonalak (lehenengo koadroa). Lehenengo lerroetan, egungo dokumentazioan dauden datuak jarri behar dituzu. Azken lerroan, ordea, dokumentazio berrian jaso beharreko izena eta sexua adierazi behar dituzu.
- Beste administrazio batzuei datuak aldatu izana jakinarazteko eskaera. “Baimenak” koadroa erabili behar duzu.
 1. 2. laukia markatu: “Organo kudeatzaileari baimena ematen diot honako honi jakinaraz diezaion dekretu honetan araututako administrazio-dokumentazioa emateko den ebazpena:”
 2. Zure datuak dituzten administrazioen laukiak markatu.
 3. GARRANTZITSUA: Adierazi zer zerbitzu edo sailetan dituzten zure datuak, zuk dakizula. Horien artxiboetan datuak aldatzea nahi duzu.

AZALPEN-OHARRA: Zure datuak erabili behar dituzten sailek baino ez dute haietarako sarbidea. Zure daturik ez duten sail edo zerbitzuek, jakina, ezin dituzte aldatu datu horiek, eta ez zaie jakinarazi behar eragiten ez dieten trantsizioerik.

Beste zalantza batzuk.

Liburuxka honetan jasota ez dauden zalantzak argitzeko, **Berdinduren bulego edo telefonoetan** eta berdindu@euskadi.eus helbide elektronikoan kontsulta daiteke.

COVID PASAPORTEARI BURUZKO ABISUA: COVID pasaporte automatikoki sortzen da eta NANaren datuak ditu. Eusko Jaurlaritzaren administrazio-dokumentazioaren datuak dituen pasaporte eskatzeko, mezu elektroniko bat bidali behar da helbide honetara: derechos-humanos@euskadi.eus. Pasaporte hori Euskadin erabiltzekoa da.

Harremanetarako

Ramiro Maeztu kalea, 3 - behea / **Vitoria-Gasteiz** / berdindu.araba@gmail.com / 945 029079

Ramón y Cajal etorbidea, 2 - behea / **Bilbao** / berdindu.bizkaia@gmail.com / 94 6453322

Mikelete pasealekua, 20 / **Donostia** / berdindu.gipuzkoa@gmail.com / 943 216551

Pertsona transexualen dokumentazio administratiboa



berdindu!

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES



Pertsona transexualen dokumentazio administratiboa

Euskadin, pertsona transexualek eskubidea dute beren sexu-identitateari dagozkion izena eta sexua jasotzen dituen dokumentazio administratiboa izateko, eta dokumentazio horrek ondorioak ditu EAEko administrazio publiko guztietan.

Zertarako balio du?

Interesatuak, dokumentazioa eskatzearekin batera, eska dezake berarekin loturaren bat duten euskal administrazio edo zerbitzu publikoei aldaketaren berri ematea. Une horretatik aurrera, haiek behartuta egongo dira pertsona transexualak beren genero-identitatearen arabera tratatzera.

Hona hemen ohiko eskaeren adibide batzuk: Osakidetza, Hezkuntza Saila, Gazte Txartela, garraio-txartelak, udal liburutegiak edo kiroldegiak, eskola-kirola, Lanbide, aldundien edo udalen beste zerbitzu batzuk...

Kontuan izan behar da estatu mailako zerbitzu edo artxiboetan ezin direla datuak aldatu gaur egun.

Nola eskatzen da?

Inprimaki espezifikoa bete behar da eta dokumentazioarekin batera aurkeztu **Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean)**, hiru hiriburuetan bana baitago, eta aurkez daiteke orobat Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

Euskadiko eskualde guztietatik posta ziurtatuz bidal daiteke:

Eusko Jaurlaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria

Donostia kalea,1.

01010 Vitoria-Gasteiz

Zer dokumentazio aurkeztu behar da eskabidearekin batera?

- | | |
|---|---|
| 1. Identifikazio-agiriaren kopia. Hauetako bat: | <ul style="list-style-type: none">• NAN.• AIZ.• Pasaporte.• Gidabaimena.• Beste bat, jatorrizko herrialdeak emana. |
| 2. Karnet neurriko argazki egin berri bat. | |
| 3. Erroldatze-ziurtagiria. | |
| 4. Eskabidea interesdunak aurkezten ez badu, haren ordezkariak baizik (adingabeen kasuan , gurasoek egin behar dute): | <ul style="list-style-type: none">• Ordezkaritza-dokumentua (adingabeen kasuan, familia-liburuaren kopia bat erabiltzen da).• Ordezkararen identifikazio-agiriaren kopia (NAN, AIZ...). |